



**GOBERNU JUNTAK 2023ko maiatzaren 24an EGINDAKO
EZ-OHIKO BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO (lehendakaria)

OÑATI

ETORRITAKOAK

ANDER GARAY
AINHOA LETE
IRAITZ LAZKANO
GORKA ARTOLA
IZARO ELORZA
CRISTINA MARQUINA
UNAI ELKORO
IÑAKI OLALDE
GARAZI LARREA

ARRASATE
BERGARA
ELGETA
BERGARA
OÑATI
BERGARA
ARETXABALET
OÑATI
ANTZUOLA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Leire Ucin Soraluze

2023ko maiatzaren 24an, 11:00etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.



1.- Aurreko Gobernu Juntako bilerako akta onartzea, hala badagokio.

Juntakideak ados agertzen dira aurreko bilerako aktarekin.

2.-Ehunkien eta objektu txikiak jasotzeko zerbitzu kontratua dela eta, EMAUS enpresari esleitzea.

Idazkariaren txosten-proposamena

Gaia: Erabilitako arropa eta objektu berrerabilgarri txikiak aparte biltzeko, jasotako materialak kudeatzeko eta edukiontzia garbitu eta mantentzeko zerbitzuari dagokion kontratazioa

2023ko otsailaren 14an Gobernu Juntak egindako ez-ohiko bileran aho batez onartu zuen Erabilitako arropa eta objektu berrerabilgarri txikiak aparte biltzeko, jasotako materialak kudeatzeko eta edukiontzia garbitu eta mantentzeko zerbitzuari dagokion kontratazioa

Hauek izan dira lizitaziora aurkeztutako enpresak, eta beraien eskaintza ekonomikoak:

- FUNDACION PUEBLO PARA PUEBLO: 34.800 Eur + BEZ
- EMAUS GIPIZKOA, S.L.: 33.150 Eur + BEZ

Beraz, pleguetan xedatutako formula erabilia, honako puntuazioa esleitzen zaie:

- FUNDACION PUEBLO PARA PUEBLO: 0 puntu
- EMAUS GIPIZKOA, S.L.: 50 puntu

Beraz, puntuazioa guztira:

	F. PUEBLO PARA PUEBLOEMAUS GIPIZKOA, S.L.	
MEMORIA	29,70	38,25
PREZIOA	0	50
TOTAL	29,70	88,25

EMAUS GIPIZKOA, S.L.ri errekeritu zaio administrazio pleguetako 21. klausulan xedatutako dokumentazioa aurkez dezan hamar eguneko epean. Horrez gain, behin betiko bermea jartzeko ere eskatu zaio.

Ikusirik dokumentu horiek guztiak aurkeztu dituela eta egokiak direla eta 1.657,50 Euroko fidantza jarri duela

Ondorioz, kontratazio mahaiak Gobernu Juntari proposatzen dio:

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)



LEHENA. Erabilitako arropa eta objektu berrerabilgarri txikiak aparte biltzeko, jasotako materialak kudeatzeko eta edukiontziak garbitu eta mantentzeko zerbitzuari dagokion kontratatua EMAUS GIPUZKOA, S.L enpresari esleitzea.

BIGARRENA. 15 eguneko epean kontratua formalizatzea.

Arrasaten, 2023ko maiatzaren 10ean

Idazkari-kontuhartzailea

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Izaro Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Unai Elgoro, Ander Garay, Cristina Markina, Garazi Larrea, Iñaki Olalde.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, gai ordeneko 2. puntua aho batez onartzen da.

3.- Poltsa konpostagarrien hornidura kontratua dela eta, ID WASTE enpresari esleitzea onartzea.

Poltsa konpostagarrien horniduraren kontratazioari dagokion espedientea Esleipen txostena

2023ko otsailaren 27ko Gobernu Juntaren Ohiko bileran poltsa konpostagarrien hornidurari dagokion kontratazio espedientea onartu zen.

Hornidura kontratua lizitatu da, eta hiru enpresa aurkeztu dira:

- ID-WASTE (1 2 3 4 Loteak)
- MOHEDA & RAÑAL (1 2 3 4 loteak)
- BOLSAS CASTRESANA (1 2 3 4 loteak)

Hiru enperek DEUC dokumentuak aurkeztu dituzte eta egiaztatu da ondo daudela. B

Artxiboaren irekierari dagokion akta:



Poltsa konpostagarrien horniduraren kontratazioari dagokion espedientea Kontratazio mahaiaren akta: B Artxiboaren irekiera

2023ko apirilaren 17an kontratazio mahaia bildu da B Artxiboa irekitzeko.

Enpresek aurkeztutako proposamenak Ingurumen zerbitzura bideratzen dira balorazioa egiteko.

2022ko maiatzaren 2an Ingurumen zerbitzuko arduradun teknikoak igorritako txostena ikusirik:

EKOIZLE TXIKI ETA HANDIEN ETXeko HONDAKINEN FRAKZIO ORGANIKO KONPOSTAGARRIA BILTZEKO POLTSA KONPOSTAGARRIAK HORNITZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIOA

Aurrekariak

Debagoieneko Mankomunitatean etxeko hondakinak biltzeko poltsa konpostagarrien hornidura kontratatzekeo prozeduraren barruan (10, 40, 60 eta 120 litro), txosten honetan B gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa eta proposatutako poltsa konpostagarrien laginak baloratzen dira.

Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da.

Lizitatuzaileak

Lehiaketa ireki honetara aurkeztutako enpresak honakoak izan dira:

- BOLSAS CASTRESANA, S.L.
- ID WASTE, S.L.
- MOHEDA & RAÑAL, S.L.



Ondorengo taulan enpresa bakoitza zein lotetara aurkeztu den zehazten da:

Enpresa	1. LOTEA (10L)	2. LOTEA (40L)	3. LOTEA (60L)	4. LOTEA (120L)
BOLSAS CASTRESANA S.L.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
ID WASTE S.L.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
MOHEDA&RAÑAL S.L	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Bete beharreko baldintza orokorrak

Agiri teknikoan aipatzen diren baldintza orokorren barruan, agiri honetan baloratzen diren baldintza tekniko hauek bete behar dira:

- Proposatutako poltsa konpostagarria izango da, Europako UNE-EN 13432 arauaren arabera. Arau hori TÜV AUSTRIA erakunde belgikarrak (lehen AIB-VINÇOTTE), Alemaniako DIN CERTCO erakundeak edo egokitasuna ebaluatzeko gaitasuna egiaztatuta duen beste erakunderen batek ziurtatuko du, "OK Compost" (Seedling- label), "DIN-Geprüft Industrial Compostable" ("DIN-Geprüft Industrial Compostable") edo Europako Bioplastikoen Elkartearen (European Bioplastics e. V.) etiketa konpostagarriaren bidez.
- Gutxieneko lodiera: 18 µm 1. lotearentzat eta 22µm 2, 3 eta 4 loteentzat.
- Soldadura zigitua. Soldadura alboetan 1 eta 2 loteentzat.

Esleipen irizpideak

Kontratu hau prozedura ireki bidez esleituko da, hainbat esleipen-irizpide erabiliz, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarrituta.

Kontratu esleipenerako eskaintzak baloratzeko irizpideak eta ematen zaizkien haztapenak honako hauek dira:

- oProposamen ekonomikoa: 60%
- oPoltsa konpostagarrien ezaugarri tekniko eta funtzionalak (dokumentu honetan balioesten diren balio-judizioen menpe daudenak): 40%
 - Poltsaren erresistentzia. Soldaduren eraginkortasuna tanta-jarioa saihesteko eta hauen sendotasuna, betetzean edo ontziz aldatzean pairatu ditzakeen tentsioak jasan eta ireki ez dadin: 20 puntu.
 - Poltsak bobinatik banatzeko erraztasuna, ebakitzerakoan hausturarik sortu gabe: 8 puntu.
 - Poltsaren neurriak eta edukiontzietara egokitzeko gaitasuna: 8 puntu
 - Poltsaren lodiera eta uniformetasuna: 4 puntu.



Lizitaziotik kanpo geratuko dira balorazio tekniko honetan gutxienez 20 puntu lortzen ez dituzten proposamenak.

Kontratazio-baldintzak betetzea

Lizitazio-pleguetan ezartzen den bezala, lizitatuak lagin multzo bat aurkeztu beharko du bobinan (gutxienez 20 poltsa), Mankomunitateko zerbitzu teknikoek aztertu eta egoki irizitako eragiketa-probak egin ditzaten.

Proposamen teknikoaren eta bidalitako laginaren artean desadostasunik balego, lagina nagusituko da, proposamenak baloratzeko eta baita esleipenerako ere.

Jasotako eskaintzak baloratu ondoren, kasu batzuetan lizitazio-pleguetan eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez direla ziurtatu da, eta, beraz, lote hauek lizitazio-prozesutik kanpo geratu dira:

- BOLSAS CASTRESANA, S.L. enpresak ez du aurkeztu bere izenean poltsen konpostagarritasuna egiaztatzen duen egiaztagiririk, UNE-EN 13432 arauaren arabera. Aurkeztu duen ziurtagiria beste enpresa bati dagokio (PLÁSTICOS ALHAMBRA, S.L.). Beraz, BOLSAS CASTRESANA SL lau loteen lizitazio- prozesutik kanpo geratu da.
- MOHEDA & RAÑAL, S.L. enpresak 3. loterako (60L) aurkeztutako laginek ez dute betetzen agiri teknikoan ezartzen den edukiontzirekiko bateragarritasun-baldintza. 3. loterako (60L) aurkeztutako lagina 4. loterako (120L) aurkeztutakoaren berdina da. Beraz, MOHEDA & RAÑAL, S.L. 3. loteko (60L) lizitazio-prozesutik kanpo geratu da.
- MOHEDA & RAÑAL, SL enpresak 2. loterako (40L) aurkeztutako laginak ez du betetzen gutxienezko lodieraren baldintza (22µm), neurketa mikrometrikotan egiaztatu den bezala. Beraz, MOHEDA & RAÑAL, S.L. 2. loteko (40L) lizitazio- prozesutik kanpo geratu da.

Horrenbestez, honako hauek dira horniduraren ezaugarri teknikoak betetzen dituzten eta, beraz, balorazioa/puntuazioa jaso duten eskaintzak:



Enpresa	1. LOTEA (10L)	2. LOTEA (40L)	3. LOTEA (60L)	4. LOTEA (120L)
ID WASTE S.L.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>
MOHEDA&RAÑAL S.L	<input type="checkbox"/>			<input type="checkbox"/>

- loterako (60L) esleipen-prozesua hutsik geratu da, goian aipatutako baldintza teknikoak betetzen ez direlako.

Operazio-probak

Ezarritako irizpideei jarraituz, hainbat operazio-proba egin dira lote bakoitzaren baldintza teknikoak eta funtzionalak baloratzeko:

- Poltsaren erresistentzia:
 - Poltsa hautsi arte betetzea: eskainitako lote bakoitzeko 5 poltsarekin egin da proba. Poltsa urez betetzen da eta zaku gisa eusten da, erabiltzaileak poltsa ontzitik ateratzean egiten duen eragiketa simulatuz. Jasotako datuak: tanta-jarioa badagoen (poro, zulo edo soldaduretatik), materiala zenbat litrotik aurrera hasten den luzatzen eta poltsa zenbat litroekin hausten den. Poltsaren portaera kualitatiboa ere aztertzen da (berehala hausten den edo elongazio-aldi batean pisua mantentzen duen).
 - Trakzio-proba: hasierako neurria erregistratu ondoren, poltsa bi muturretatik luzatzen da, poltsako bi geruzak batuta. Bitarteko neurriak eta poltsa hausten den azken neurria erregistratzen da.

Poltsak bobinatik banatzeko erraztasuna: eskainitako lote bakoitzeko, gutxienez 10 poltsa bereizi dira bobinatik. Poltsa hautsi den, zer haustura-mota izan den edo poltsa bilkaritik erraz bereizi den erregistratu da.

- Poltsaren neurriak eta edukiontzietarako egokitzeko gaitasuna: poltsaren benetako neurriak neurtzen dira. 1. eta 2. loteetako laginek alboko soldadura duten egiaztatzen da. Poltsak beren neurriko edukiontzietan jarri ondoren nola egokitzen diren aztertzen da. Proba hau egiteko, agiri teknikoan lote bakoitzerako ezarritako kanpoko zabalerako eta sakonerako edukiontzia erabili dira.
- Poltsaren lodiera eta uniformetasuna: poltsaren lodiera *Baxlo 4000DIG* mikrometro batekin egiaztatzen da (aparatuaren ziurgabetasuna: +/- 1 µm). Neurketak eskainitako lote bakoitzeko 5 poltsetan egin dira, eta neurketa



hainbat aldiz errepikatu da poltsako hainbat puntutan. Laginek gutxieneko lodiera dutela egiaztatu ondoren, eta betetzen ez dituzten laginak baztertuta, indar-proba bat egin da eskainitako lote bakoitzeko 10 poltsetan, hatz erakuslearekin poltsak ziztatuz, hautsi arte luzatuz eta benetako erresistentzia ebaluatuz.

Laginen balorazioa

Ondorengo tauletan probetan lortutako emaitzak aurkezten dira:

Lotea: 10L-ko poltsak

Eskakizun teknikoak	ID WASTE	MOHEDA&RAÑAL
1. Poltsaren erresistentzia (20 puntu)	15,08	11,92
2. Poltsa bobinatik banatzeko erraztasuna (8 puntu)	8	8
3. Poltsaren neurriak eta edukiontzietara egokitzeko gaitasuna (8 puntu)	6	2,8
4. Poltsaren lodiera eta uniformetasuna (4 puntu)	4	2
GUZTIRA (gehienez 40 puntu)	33,08	24,72

Poltsen **erresistentzia-balorazioak** (betetze- eta trakzio-probak) honako puntuazio proportzional hauen arabera dira:

- Poltsa hautsi arte betetzea: gehieneko puntuazioa (12 puntu) 8 litroekin lortzen da, beraz, poltsak eusten dituen 2 litroko 3 puntu lortzen dira.
- Trakzio-proba: gehieneko puntuazioa (8 puntu) hausturarik gabeko 20 zentimetroko luzapenarekin. Hausturarik gabe luzatutako zentimetroak zuzenean proportzionalak dira puntuazioarekiko.

Beste hiru balorazioak eskala hauetara egokitzen dira:

2. Poltsa bobinatik banatzeko erraztasuna (8 puntu)	Apurtu egiten da	Kostata, ez da lehenengoan lortzen	Kostata baina lehenengoan lortzen da	Erraz	Oso erraz
	0 P	2 P	4 P	6 P	8 P
3. Poltsaren neurriak eta edukiontzietara egokitzeko gaitasuna (8 puntu)	Ez da egokitzen	Askatu daiteke/ Oinarrira arte betetzean ertzetatik apurtzen da	Gehiegi soberan	Apur bat soberan	Oso ondo
	0 P	2 P	4 P	6 P	8 P
4. Poltsaren	Lehenengo	Erresistentzia	Erresistentzia		



Iodiera eta uniformetasuna (4 puntu)	an apurtzen da	agertzen du apurtu aurretik	handia agertzen du
	0 P	2 P	4 P

Lotea: 40L-ko poltsak

Eskakizun teknikoak	ID WASTE
1. Poltsaren erresistentzia (20 puntu)	13,93
2. Poltsa bobinatik banatzeko erraztasuna (8 puntu)	8
3. Poltsaren neurriak eta edukiontzietara egokitzeko gaitasuna (8 puntu)	6
4. Poltsaren iodiera eta uniformetasuna (4 puntu)	4
GUZTIRA (gehienez 40 puntu)	31,93

Poltsen **erresistentzia-balorazioak** (betetze- eta trakzio-probak) honako puntuazio proportzional hauen arabera dira:

- Poltsa hautsi arte betetzea: gehieneko puntuazioa (12 puntu) 18 litroekin lortzen da, beraz, poltsak eusten dituen 2 litroko 3 puntu lortzen dira.
- Trakzio-proba: gehieneko puntuazioa (8 puntu) hausturarik gabeko 40 zentimetroko luzapenarekin. Hausturarik gabe luzatutako zentimetroak zuzenean proportzionalak dira puntuazioarekiko.

Beste hiru balorazioak eskala hauetara egokitzen dira:

2. Poltsa bobinatik banatzeko erraztasuna (8 puntu)	Apurtu egiten da	Kostata, ez da lehenengoan lortzen	Kostata baina lehenengoan lortzen da	Erraz	Oso erraz
	0 P	2 P	4 P	6 P	8 P
3. Poltsaren neurriak eta edukiontzietara egokitzeko gaitasuna (8 puntu)	Ez da egokitzen	Askatu daiteke/ Oinarrira arte betetzean ertzetatik apurtzen da	Gehiegi soberan	Apur bat soberan	Oso ondo
	0 P	2 P	4 P	6 P	8 P
4. Poltsaren iodiera eta uniformetasuna (4 puntu)	Lehenengo an apurtzen da	Erresistentzia agertzen du apurtu aurretik	Erresistentzia handia agertzen du		
	0 P	2 P	4 P		



4. Lotea: 120L-ko poltsak

Eskakizun teknikoak	ID WASTE	MOHEDA & RAÑAL
1. Poltsaren erresistentzia (20 puntu)	9,92	14,98
2. Poltsa bobinatik banatzeko erraztasuna (8 puntu)	8	3,2
3. Poltsaren neurriak eta edukiontzietara egokitzeko gaitasuna (8 puntu)	8	8
4. Poltsaren lodiera eta uniformetasuna (4 puntu)	2,8	2
GUZTIRA (gehienez 40 puntu)	28,72	28,18

Poltsen **erresistentzia-balorazioak** (betetze- eta trakzio-probak) honako puntuazio proportzional hauen arabera dira:

- Poltsa hautsi arte betetzea: gehieneko puntuazioa (12 puntu) 24 litroekin lortzen da, beraz, poltsak eusten dituen 2 litroko 3 puntu lortzen dira.
- Trakzio-proba: gehieneko puntuazioa (8 puntu) hausturarik gabeko 40 zentimetroko luzapenarekin. Hausturarik gabe luzatutako zentimetroak zuzenean proportzionalak dira puntuazioarekiko.

Beste hiru balorazioak eskala hauetara egokitzen dira:

2. Poltsa bobinatik banatzeko erraztasuna (8 puntu)	Apurtu egiten da	Kostata, ez da lehenengoan lortzen	Kostata baina lehenengoan lortzen da	Erraz	Oso erraz
	0 P	2 P	4 P	6 P	8 P
3. Poltsaren neurriak eta edukiontzietara egokitzeko gaitasuna (8 puntu)	Ez da egokitzen	Askatu daiteke/ Oinarrira arte betetzean ertzetatik apurtzen da	Gehiegi soberan	Apur bat soberan	Oso ondo
	0 P	2 P	4 P	6 P	8 P
4. Poltsaren lodiera eta uniformetasuna (4 puntu)	Lehenengo an apurtzen da	Erresistentzia agertzen du apurtu aurretik	Erresistentzia handia agertzen du		
	0 P	2 P	4 P		

HONAKO HAU EBAZTEN DU KONTRATAZIO MAHAIK:



- BOLSAS CASTRESANA, S.L. enpresak ez du aurkeztu bere izenean poltsen konpostagarritasuna egiaztatzen duen egiaztagiririk, UNE-EN 13432 arauaren arabera. Aurkeztu duen ziurtagiria beste enpresa bati dagokio (PLÁSTICOS ALHAMBRA, S.L.). Beraz, BOLSAS CASTRESANA SL lau loteen lizitazio- prozesutik kanpo geratu da.
- MOHEDA & RAÑAL, S.L. enpresak 3. loterako (60L) aurkeztutako laginek ez dute betetzen agiri teknikoan ezartzen den edukiontzirekiko bateragarritasun-baldintza. 3. loterako (60L) aurkeztutako lagina 4. loterako (120L) aurkeztutakoaren berdina da. Beraz, MOHEDA & RAÑAL, S.L. 3. loteko (60L) lizitazio-prozesutik kanpo geratu da.

MOHEDA & RAÑAL, SL enpresak 2. loterako (40L) aurkeztutako laginak ez du betetzen gutxieneko lodieraren baldintza (22µm), neurketa mikrometrikotan egiaztatu den bezala. Beraz, MOHEDA & RAÑAL, S.L. 2. loteko (40L) lizitazio-prozesutik kanpo geratu da.

Balorazioak horrela gelditzen dira:

1. Lotea: 10L-ko poltsak

Eskakizun teknikoak	ID WASTE	MOHEDA&RAÑAL
1. Poltsaren erresistentzia (20 puntu)	15,08	11,92
2. Poltsa bobinatik banatzeko erraztasuna (8 puntu)	8	8
3. Poltsaren neurriak eta edukiontzietara egokitzeko gaitasuna (8 puntu)	6	2,8
4. Poltsaren lodiera eta uniformetasuna (4 puntu)	4	2
GUZTIRA (gehienez 40 puntu)	33,08	24,72

2. Lotea: 40L-ko poltsak

Eskakizun teknikoak	ID WASTE
1. Poltsaren erresistentzia (20 puntu)	13,93
2. Poltsa bobinatik banatzeko erraztasuna (8 puntu)	8
3. Poltsaren neurriak eta edukiontzietara egokitzeko gaitasuna (8 puntu)	6



4. Poltsaren lodiera eta uniformetasuna (4 puntu)	4
GUZTIRA (gehienez 40 puntu)	31,93

4. Lotea: 120L-ko poltsak

Eskakizun teknikoak	ID WASTE	MOHEDA & RAÑAL
1. Poltsaren erresistentzia (20 puntu)	9,92	14,98
2. Poltsa bobinatik banatzeko erraztasuna (8 puntu)	8	3,2
3. Poltsaren neurriak eta edukiontzietara egokitzeko gaitasuna (8 puntu)	8	8
4. Poltsaren lodiera eta uniformetasuna (4 puntu)	2,8	2
GUZTIRA (gehienez 40 puntu)	28,72	28,18

2023ko maiatzaren 4an, eguadiako 12etan, bildu da kontratazio mahaia C Artxiboa irekitzeko.

Lehenik eta behin, memoria teknikoari dagokion balorazioa irakurtzen da.

C Artxiboa irekitzen da, eta hau da emaitza:

1 LOTEA: 10l Poltsak	ID-WASTE	MOHEDA & RAÑAL
Prezioa (BEZ kanpo)	0,0424	0,0444
Puntuak	60	56,19
2 LOTEA: 40l Poltsak	ID-WASTE	
Prezioa (BEZ kanpo)	0,13	
Puntuak	60	
4 LOTEA: 120l Poltsak	ID-WASTE	MOHEDA & RAÑAL
Prezioa (BEZ kanpo)	0,2605	0,384
Puntuak	60	44,06

Hori horrela, puntuazioa guztira:

1 LOTEA: 10l Poltsak	ID-WASTE	MOHEDA & RAÑAL
Memoria	33,08	24,72
Eskaintza ekonomikoa	60	56,19



Guztira	93,08	80,91
----------------	--------------	--------------

2 LOTEA: 40I Poltsak	ID-WASTE	
Memoria	31,93	
Eskaintza ekonomikoa	60	
Guztira	91,93	

4 LOTEA: 120I Poltsak	ID-WASTE	MOHEDA & RAÑAL
Memoria	28,72	28,18
Eskaintza ekonomikoa	60	44,06
Guztira	88,72	72,24

Hori horrela, Kontratazio mahaiak proposatzen du ID WASTE enpresari esleitzea 1, 2 eta 4 loteak. Horretarako, ID WASTE enpresari errekeritu zaio zaio 10 eguneko epean Administrazio-pleguetako 19.5. klausulan xedatutako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurrezteko.

2023ko maiatzaren 16an aurkeztu ditu lote bakoitzari dagozkion abalak eta beharrezkoa den dokumentua kontratua esleitzeko.

Hori guztia kontuan harturik, proposatzen zaio Gobernu Juntari:

LEHENA. ID WASTE enpresari behin betiko esleitzea poltsa konpostagarrien hornidurari dagokion kontratua.

BIGARRENA. BOLSAS CASTRESANA, S.L. lizitaziotik at uztea. Ez du aurkeztu bere izenean poltsen konpostagarritasuna egiaztatzen duen egiaztagiririk, UNE-EN 13432 arauaren arabera. Aurkeztu duen ziurtagiria beste enpresa bati dagokio (PLÁSTICOS ALHAMBRA, S.L.).

HIRUGARRENA. 3. LOTEA desertu deklaratzeko.

LAUGARRENA. 3. LOTEA esleitzea Kontratazio Publikoa arautzen duen Legearen 168. artikulua baimentzen duen publizitate gabeko prozedura adostuaren bitartez.

BOSGARRENA. ID WASTE enpresari kontratua esleitzea gutxienez 15 egun baliodun igaro ondoren, Kontratazio Publikoa arautzen duen 153. artikuluan xedatzen dena kontuan hartuz.

Arrasaten, 2023ko maiatzaren 17an.

Idazkari-kontuhartzailea

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (10): Maite Anton, Iraitz Lazkano, Izaro Elorza, Ainhoa Lete, Gorka Artola, Unai Elkoro, Ander Garay, Cristina Markina, Garazi Larrea, Iñaki Olalde.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0



Ondorioz, gai ordeneko 3. puntua aho batez onartzen da.

4.-Debagoieneko Mankomunitateko langileei 2023rako %2,5eko soldata igoera aplikatzea onartzea, 2023ko urtarrilaren 1etik, atzeraeraginezko efektuekin.

Lehendakariak komentatzen du puntu hau bertan behera utziko duela, krediturik ez dagoelako.

5. 2022ko likidazioaren berri ematea.

Idazkari-kontuhartzaileak 2022ko likidazioari dagozkion datuak ematen ditu:

2022ko likidazioa 2023ko maiatzaren 19ko 2023/0056 Lehendakaritza Ebazpen bitartez onartu zen.

- Aurrekontu emaitza: 2.053.689,91 Eur
- Gastu Orokorretako Altxortegi Gerakina: 3.414.731, 96 Eur
- Epeleko Fondona: 1.340.866,22 Eur
- Zor bizia: %13

6. Ofiziozko berrikuspena

Lehendakariak hartzen du hitza: dio ofiziozko berrikuspenaren eskaera dela eta, kanpoko aholkulari bati eskatu diotela aholkularitza, eta txosten horren zain daudela erabakia hartzeko.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 11:45etan bukatutzat ematen da bilkura.

Arrasaten, 2023ko maiatzaren 24an.

LEHENDAKARIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

